

GIPUZKOA

'Sagardo ibaiak bizitza iturri' erakusketa Usurbilen

Usurbil, Astigarraga eta Hernani herriei buruzko alderdi ezezagunak ezagutara ematen ditu

JOSU ARANBERRI USURBIL

7 mayo 2016
00:45

'Sagardo ibaiak, bizitza iturri' Sagardoaren Lurraldeak Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo udalekin eta Donostiako Aquarium-ekin elkarlanean sustatutako erakusketa ibiltaria da. Erakusketa 2016ko apirilaren 20tik 27ra bitartean Hernanin ikusgai egon ondoren, hilaren 13tik 22ra bitartean Usurbilen izango da ikusgai, Potxoenean hain zuzen ere. Irailean, berriz, Astigarragan eta 2017an Donostiako Aquarium-ean ikusteko aukera izango da.

Estatuko, probintziako eta udaletako artxiboetan egindako ikerketak, Oria eta Urumea ibaiak, hain zuzen Gipuzkoako 2 ibairik garran-tzitsuenek, sagardoaren inguruko sekretu ugari gordetzen dituztela eta bi bailara hauetako bizilagunen komunikazio eta harreman ekonomikoen antolaketan eta Gipuzkoako garapen historikoan berebiziko garrantzia izan zutela erakutsi digute.

Aintzinan Gipuzkoak izan zituen bi bizitza iturri nagusiak eta bere bizilagunentzako aberastasunaren iturri izan ziren. Une batzuetan, gainera, gune aurrendariak eta puntako teknologiadunak izan ziren eta beren ur-bazterrak istorio ugari eta askotarikoen lekuko izan ziren, esaterako: XVIII. mendeko langileen greba, Ergobiako bidesarian ordaindu behar zen tasa, itsasoa eta portuekin erlaziozaturiko zenbait ogibidetan soldataren zati bat ordaintzeko sagardoa erabiltzea, Astigarragako alkate harakiña eta Murgia Jaunen haserrea, Ignacio de Soroa untzigile usurbildar ospetsuaren amodio-kontuak, etab.

PUBLICIDAD



Aurkezpena. Sagardoaren inguruko erakusketa ibiltariaren aurkezpenean parte hartu zuten ordezkariak.



Entrenador personal + plan nutricional Nutrotest

40€

16€

Llévatelo

Ezezagunak eta aldi berean bitxiak eta interesgarriak zaizkigun gure iraganaren alderdi hauek, Urumea eta Oria ibaien ahalmen turistiko eta kulturalak balorean jar- tzeo aukera eta Gipuzkoako garapen historikoa ezagutzeko ematen dute.

Bitxikeriak

Erakusketa honek, sagardoaren kulturaren inguruko zenbait bitxikeria ezagutzeko aukera emango dio bisitariari. Ba al zenekiten, esaterako, ibaiak iraganeko autobideak izan zirela? Gabarrari zerbitzua lehendabiziko garraio publikoa izan zela? Oria ibaia Gipuzkoako ontzigile ospetsuenetako batzuen sorlekua izan zela? Ternuara baleak ehizatzen joaten ziren marinelek 2-3 litro sagardo edaten zituztela egunean? Sagardoa inguruko ontziola, burdinola eta portuetan kontraturiko langileen soldataren parte zela? Oria eta Urumea ibaiak puntakoak izan ziren ainguragintza eta ontzigintzan?